



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Resolución 4/2021 ebazpena

Recurso 11/2020 errekurtsoa

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria

M^a Aranzazu Arana Learte

GRUPO UNIVE SERVICIOS JURÍDICOS SL enpresak kontratazio alorreko errekurtso berezia aurkeztu zuen honako kontratu honen agirien aurka: “GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU sozietateari lege aholkularitza iraunkor eta integraleko zerbitzu profesionalak ematea (expedientea 2020_06)”. Errekurtso berezi horretan, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa, gaurko egunean burututako saioan, gorago adierazi diren kideak bertan zirela, aho batez onartu du ondorengo erabakia.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por GRUPO UNIVE SERVICIOS JURÍDICOS, S.L. contra los pliegos del contrato de servicios profesionales de asesoramiento permanente e integral de carácter legal a la sociedad GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU (expediente 2020_06), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENA.- 2020ko abenduaren 21ean Auzitegiko erregistroan aurkeztutako idazki bidez, GRUPO UNIVE SERVICIOS JURÍDICOS SL enpresak kontratazio alorreko errekurtso berezia jarri zuen ebazpen honen hasieran adierazitako agirien aurka.

BIGARRENA.- Biharamunean Auzitegiak idazkia helarazi zion GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU sozietateari, errekurtsoaren kopia atxikita zuena, expedientea eta errekurtsoaren inguruko txostena eskatzeko. Hori guztia Auzitegiaren erregistroan sartu zen abenduaren 28an.

HIRUGARRENA.- Abenduaren 29an, proposamenak aurkezteko epea amaitzen zen egunean, Auzitegiak entitate kontratatzailearengana jo zuen proposamenak aurkeztu zituzten lizitatuzaileen nortasunari buruzko informazioa eskatzeko, haiei errekurtsoa helarazi ahal izateko helburuz.

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro del Tribunal el día 21 de diciembre de 2020, GRUPO UNIVE SERVICIOS JURÍDICOS, S.L. interpuso recurso especial en materia de contratación contra los pliegos referidos en el encabezamiento de esta resolución.

SEGUNDO.- El día siguiente el Tribunal dirigió oficio a GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU remitiéndole copia del recurso y reclamándole el expediente y el correspondiente informe acerca del recurso y de la medida cautelar interesada. Todo lo cual tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 28 de diciembre.

TERCERO.- El 29 de diciembre, fecha en la que finalizaba el plazo de presentación de proposiciones, el Tribunal se dirigió a la entidad contratante en solicitud de información sobre la identidad de los licitadores que las hubieran presentado, a efectos de darles traslado del recurso.



Eskaera horri erantzunez, entitateak adierazi zuen lizitatzailerik hauek aurkeztu dutela eskaintza:

En respuesta al requerimiento la entidad informó que han presentado oferta los siguientes licitadores:

- SIMMONS & SIMMONS LLP

- SIMMONS & SIMMONS LLP

LAUGARRENA.- Kontuan hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuena, 56.3 artikuluan xedatutakoa, Auzitegiak errekurtsoaren berri eman zion lizitatzailerari, eta bost egun balioduneko epea eman zion alegazioak aurkezteko.

CUARTO.- De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 56.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, el Tribunal dio traslado del recurso a dicho licitador concediéndole un plazo de cinco días hábiles para formular alegaciones.

Urtarrilaren 13an, SIMMONS & SIMMONS LLP-k idazki bat aurkeztu zuen. Idazki horretan errekurtsoa ezesteko eta adjudikazio prozedurarekin jarraitzeko eskatzen du.

El 13 de enero SIMMONS & SIMMONS LLP presentó escrito en el que termina solicitando la desestimación del recurso y la continuación del procedimiento de adjudicación.

BOSGARRENA.- 2020ko abenduaren 30eko ebazpenaren bidez, Auzitegiak erabaki zuen kontratua adjudikatzeko prozedura etetea errekurtsoa ebatzi arte.

QUINTO.- Por resolución de 30 de diciembre de 2020 el Tribunal acordó suspender el procedimiento de adjudicación del contrato hasta que se resuelva el recurso.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

LEHENA.- Errekurtsoa zerbitzu-kontratu baten baldintza agirien aurka jarri da. Kontratu horren balio zenbatetsia 173.800 eurokoa da.

PRIMERO.- El recurso se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios cuyo valor estimado asciende a 173.800 euros.

Beraz, errekurritutako agiriaren aurka kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke, hala xedatzen baitu 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL), 44. artikuluen 1.a) eta 2.a) paragrafoetan.

Por lo tanto, el acto es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.a) del artículo 44 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP).

Entitate kontratatzailea pertsona bakarrekotako sozietate anonimo bat da, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAU (aurrerantzean, GHK); sozietate horren bazkide bakarra Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa da, eta hortik datorkio bitarteko propio eta zerbitzu tekniko izaera, SPKLren 32. artikuluen arabera.

La entidad contratante es una sociedad anónima unipersonal, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAU (en adelante, GHK), cuyo único socio es el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, del cual ostenta la condición de medio propio y servicio técnico, en el sentido del artículo 32 LCSP.

Beraz, GHK Administrazio Publiko izaera ez duen botere adjudikatzailerik bat da, SPKL legearen 3.3.d) artikuluan aurreikusitakoetako bat.

Por tanto, GHK es un poder adjudicador de los contemplados en el artículo 3.3.d) LCSP, que no tiene la consideración de Administración Pública.

SPKLren 47.1 artikuluen lehenengo

A tenor del párrafo primero del artículo 47.1



paragrafoaren arabera, "Errekurtsoak administrazio publikotzat jotzen ez diren botere adjudikatzailen egintzen aurka jarri direnean, aurkaratutako egintza sortu duen erakundearekin lotutako administrazioaren kasuan eskumen hori daukan organo independentea izango da eskuduna."

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120. artikuluan arautzen den partzuergoak atxikitzeko araubidearen arabera, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikitako partzuergo bat da, eta hala zehazten du indarreko estatutuen 3.1 artikulua (2017ko irailaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala).

Horrenbestez, errekurtso hori ebazteko eskumena Auzitegi honi dagokio, hala esleitzen baitio 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzekoak, 2.1 artikuluan.

BIGARRENA.- Errekurtsoa Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 50.1.b) artikuluan aurreikusten duen hamabost egun baliaduneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartzen bada lizitazio iragarkia eta baldintza agiriak 2020ko abenduaren 11an argitaratu zirela Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman.

HIRUGARRENA.- SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, errekurtsogileak legitimazioa du errekurtsoa jartzeko, izan ere, errekurtsoa jartzeko idazkiari erantsitako ahalorde-eskrituran jasota dagoenez, sozietate horren helburu soziala aholkularitza juridiko espezializatuko zerbitzuak emateko bitartekotza da, egoitza propioen edo frankiziatuen sare bat garatuz, eta uste du baldintza agirien klausula batzuek kalte egiten dietela bere interes legitimoei, klausula horiek kontratazio publikoaren oinarriko printzipioak diskriminatzen eta urratzen baitituzte.

LAUGARRENA.- 2020ko azaroaren 26ko erabakiaren bidez, GHKko Administrazio Kontseiluak kontratazio espediente eta kontratuaren administrazio klausula partikularren eta preskripzio teknikoaren agiriak onetsi zituen,

LCSP, "cuando se trate de los recursos interpuestos contra actos de los poderes adjudicadores que no tengan la consideración de Administraciones Públicas, la competencia estará atribuida al órgano independiente que la ostente respecto de la Administración a que esté vinculada la entidad autora del acto recurrido".

De acuerdo con el régimen de adscripción de los consorcios regulado en el artículo 120 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa es un consorcio adscrito a la Diputación Foral de Gipuzkoa, y así lo determina el artículo 3.1 de sus vigentes Estatutos (Boletín Oficial de Gipuzkoa de 6 de septiembre de 2017).

En consecuencia, la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

SEGUNDO.- El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.b) LCSP, si se tiene en cuenta que el anuncio de licitación y los pliegos se publicaron en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi el día 11 de diciembre de 2020.

TERCERO.- De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, la recurrente está legitimada para interponer el recurso, pues, según consta en la escritura de poder unida al escrito de interposición, se trata de una sociedad cuyo objeto social es la intermediación en la prestación de servicios de consultoría jurídica especializada mediante el desarrollo de una red de sedes propia o franquiciada, y considera que sus intereses legítimos se ven perjudicados por unas cláusulas de los pliegos discriminatorias y vulneradoras de los principios básicos de la contratación pública.

CUARTO.- Por acuerdo de 26 de noviembre de 2020 el Consejo de Administración de GHK aprobó el expediente de contratación y los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas del contrato, y dispuso



eta, era berean, lizitazioa prozedura irekiaren bidez irekitzea xedatu zuen.

Preskripzio teknikoaren agiriaren arabera (PTA), zerbitzu juridikoen kontratu bat da, GHKri legeizaerako aholkularitza iraunkor eta integraleko zerbitzu profesionalak emateko helburua duena, arreta berezia jarriz kontratazio publikoaren eremuan, bai eta haren sozietate publikoaren izaerarekin eta jarduten duen jarduera-sektoreekin espezifikoki lotutako gainerako arazo juridikoetan ere.

PTAren arabera, funtsezkoa da zerbitzua aipatutako eremuetan bereziki kualifikatuta dauden eta adituak diren pertsonak ematea, aditu horien berehalako erantzuna eta baita aurrez aurrekoa ere bermatzeko.

PTAk berak honela adierazten ditu eman beharreko zerbitzuak:

"2.1.1. Aholkularitza juridikoa kontratazio publikoan eta emakida kontratuen araubide juridikoan.

- Emakida kontratuak gauzatzeko eta interpretatzeko aholkularitza orokorra, barnean hartuta, izaera baztertzailerik gabe, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak lizitatutako emakida kontratuen betearazpenaren jarraipenean laguntzea, klausulen interpretazioa, balizko aldaketak, eta abar.

- Sektorre publikoko kontratazioa: GHKren kontratazioari buruzko kontsultak aztertzea eta ebaztea –sektore publikoko erakundea den aldetik–, lizitazioak arautzen dituzten baldintza agiriak berrikustea eta, oro har, kontratuen jarraipena egitea edozein fasetan, baita kontratuen exekuzioan eta azkentzean ere.

- Lizitazioaren aurreko izapideetan laguntzea.

- Baldintza agirien inguruko kontsultak eta haien erantzunak kudeatzea.

- Eskaintzen dokumentazioa berrikusten laguntzea, eskaintza teknikoa eta ekonomikoa ebaluatzen lanak sartu gabe.

- Kontratuak adjudikatzeko eta sinatzeko prozesuan laguntzea, sinatu aurreko betebeharrak egiaztatzeari buruzko jarraibideak ematea barne.

- Titulartasun publikoko beste sozietate batzuekiko eta

asimismo la apertura de la licitación por el procedimiento abierto.

A tenor del pliego de prescripciones técnicas (PPT), se trata de un contrato de servicios jurídicos cuyo objeto es la prestación de servicios profesionales de asesoramiento permanente e integral de carácter legal a GHK, con especial relevancia en el ámbito de la contratación pública, así como en las demás problemáticas jurídicas relacionadas específicamente con su carácter de sociedad pública y con los sectores de actividad en los que opera.

Según el PPT, resulta esencial que la prestación se ejecute por personas especialmente cualificadas y expertas en los ámbitos referidos, que garanticen una respuesta inmediata e incluso presencial de dichos expertos.

El propio PPT enuncia en los siguientes términos los servicios que habrán de prestarse:

"2.1.1. Asesoramiento jurídico en contratación pública y régimen jurídico de contratos concesionales

-Asesoramiento general en la ejecución e interpretación de contratos concesionales incluyendo, sin carácter excluyente, apoyo en el seguimiento de la ejecución de los contratos concesionales licitados por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, interpretación de sus cláusulas, eventuales modificaciones, etc.

-Contratación del sector público: estudio y resolución de las consultas relativas a la contratación de GHK –en su condición de entidad del sector público–, revisión de los pliegos reguladores de las licitaciones y, en general, seguimiento de los contratos en cualquiera de sus fases, incluidas su ejecución y extinción.

-Asistencia en los distintos trámites previos a la licitación.

-Gestión de las consultas al pliego y sus respuestas.

-Asistencia en revisión de documentación de ofertas, sin incluir labores de evaluación de oferta técnica y económica.

-Asistencia en el proceso de adjudicación y firma de contratos, incluyendo la provisión de directrices en relación a la verificación de las obligaciones precedentes a la firma.

-Relaciones con otras sociedades de titularidad pública y



administrazio publikoekiko harremanak (mandatuak, hitzarmenak, etab.).

- Ondare araubidea (emakidak, baimenak, etab.).

- Oro har, administrazio zuzenbidea aplikatzeari eta GHK zuzenbideari atxikitzeari buruzko guztia.

2.1.2 Merkataritza zuzenbidea

- Sozietatearen merkataritza zuzenbideari buruzko kontsultak aztertzea eta ebaztea (estatutuen aldaketak, estatutuz kanpoko itunak, batzar nagusiak, administrazio-organoak, administratzaileen erantzukizuna eta Administrazio Kontseiluaren erregelamenduak, kapital-handitzeak eta -murrizketak, galerak konpentsatzeko ekarpenak, eraldaketak, liburu ofizialen ardura, eskritura publikoak emateko eta Merkataritza Erregistroan inskribatzeko beharrezkoak diren eginbideen jarraipena, etab.)".

BOSGARRENA.- Bere errekurtsoan, GRUPO UNIVE SERVICIOS JURÍDICOS SLk aurkaratu ditu zehazki kontratuaren administrazio klausula partikularren agiriko (AKPA) ezaugarrien taulako 14.3.4 (kaudimen tekniko edo profesionala), 15 (baliabideak nahitaez atxikitzeak konpromisoa) eta 19.1.2 (esleipen irizpideak) apartatuak.

Ezaugarrien taulako 14.3 apartatuak ondorengo eran eskatzen du kaudimen tekniko edo profesionala:

“3) KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA

3.1 Azken hiru urteetan aholkularitza juridikoko proiektuekin lotuta egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, honako hauek jasotzen dituen: proiektuaren deskribapen laburra, proiektuaren zenbatekoa, lanen deskribapena, ordainsarien zenbatekoa, datak eta lanaren bezeroaren edo hartzailearen identifikazioa.

3.2 Estatu edo nazioarte mailan, gutxienez 3 aholkularitza proiektu egiaztatu beharko dira, bakoitza lizitazio kontratuaren antzeko objektu eta urteko zenbatekoarekin.

3.3. Kaudimena egiaztatzeak, SPKLren 90.1 artikuluan aurreikusitako bitartekoak erabiliko dira. Hau da:

- Hartzailea subjektu publikoa duten zerbitzuak: organo eskudunaren ziurtagirien bidez.

- Hartzailea subjektu pribatua duten zerbitzuak:

con Administraciones Públicas (encomiendas, convenios, etc.).

-Régimen patrimonial (concesiones, autorizaciones, etc.).

-En general, todo lo relativo a la aplicación del derecho administrativo y a la sujeción de GHK al mismo.

2.1.2 Derecho Mercantil

-Estudio y resolución de consultas relativas al derecho mercantil societario (modificaciones de estatutos, pactos extraestatutarios, juntas generales, órganos de administración, responsabilidad de administradores y reglamentos del Consejo de Administración, ampliaciones y reducciones de capital, aportaciones para compensar pérdidas, transformaciones, llevanza de libros oficiales, seguimiento de las diligencias necesarias para el otorgamiento de escrituras públicas e inscripción en el Registro Mercantil, etc.)”.

QUINTO.- En su recurso GRUPO UNIVE SERVICIOS JURÍDICOS, S.L. impugna, en concreto, los apartados 14.3.4 (solvencia técnica o profesional), 15 (compromiso de adscripción obligatoria de medios) y 19.1.2 (criterios de adjudicación) del cuadro de características del pliego de cláusulas administrativas particulares del contrato (PCAP).

El apartado 14.3 del cuadro de características exige la solvencia técnica o profesional en los siguientes términos:

“3) SOLVENCIA TÉCNICA O PROFESIONAL

3.1 Una relación de los principales servicios o trabajos de asesoramiento jurídico realizados en los últimos tres años en relación a proyectos de asesoramiento que incluya breve descripción del proyecto, importe del proyecto, descripción de los trabajos, importe de honorarios, fechas e identificación del cliente o destinatario de los trabajos.

3.2 A nivel estatal o internacional, al menos se deberán acreditar 3 proyectos de asesoramiento cada uno con similar objeto e importe por anualidad del contrato de licitación.

3.3 La acreditación de la solvencia se realizará por los medios previstos en el art. 90.1.a de la LCSP. Esto es:

-Servicios cuyo destinatario es un sujeto público: Mediante certificados del órgano competente.

-Servicios cuyo destinatario es un sujeto privado: Mediante



erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, hori behar bezala egiaztatzen duten dokumentuekin batera.

declaración responsable acompañada de documentos que lo acrediten suficientemente.

3.4 Kontratazio publikoaren, emakida kontratuen, Project finance motako finantzaketa kontratuen eta merkataritza- eta sozietate-zuzenbidearen arloetan espezializatutako hiru profesionalz gutxienez osatutako talde bat aurkeztea, sozietate emakidadunetan esperientzia espezifiko izanik; eta hiru profesional horietako batek, kontratua betearaztearen arduradun gisa arituko denak, gutxienez 15 urteko esperientzia izanik. Kontratuaren arduradun gisa jardungo duen azken profesional horrek egiaztatu beharko du azken hiru urteetan talde juridiko aholkulariaren arduradun gisa parte hartu duela, gutxienez, honako bezero hauen aholkularitzan (a, b, c eta d eskakizun guztiak betetzen dituela egiaztatu beharko du):

3.4 Aportación de un equipo de al menos tres profesionales especializados en las materias de contratación pública, contratos concesionales, contratos de financiación tipo Project finance y derecho mercantil y societario, con experiencia específica en sociedades concesionarias, teniendo al menos uno de ellos, que actuará como responsable de la ejecución del contrato, más de 15 años de experiencia en la materia. Este último profesional que actuará como responsable del contrato deberá acreditar haber participado en los últimos tres años, como responsable del equipo jurídico asesor, en, al menos, el asesoramiento de los siguientes clientes (debe acreditarse el cumplimiento de todos los requerimientos a, b, c y d):

- a. Hiru administrazio publikori edo nagusiki administrazio publikoen partaidetza duten sektore publikoko erakunderi aholkularitza eman izana kontratazio publikoaren arloan, oro har, eta emakida kontratu bat osorik egituratzeko bi proiektutan gutxienez.
- b. Hiru administrazio publikori edo sektore publikoko erakunderi aholku eman izana beren funtzionamendu-arau organikoak sortzeko edo aldatzeko (erakunde publikoak sortzea, administrazioen arteko hitzarmenak idaztea eta negoziatzea, estatutuak idaztea, etab.).
- c. Hiru administrazio publikori edo erakunde publiko edo pribaturi Project Finance motako kontratuak negoziatzeko edo aldatzeko aholkularitza eman izana. Erakunde horietako batek gutxienez sektore publikokoa izan behar du.
- d. Emakida kontratuen titular diren hiru sozietate igoerleri aholkularitza eman izana emakida kontratu horien eskakizunekin lotutako merkataritza eta sozietate alderdietan.

- a. *Haber asesorado a tres Administraciones Públicas o Entidades del Sector Público participadas mayoritariamente por las Administraciones Públicas en materia de contratación pública en general y, al menos, en dos proyectos de estructuración integral de un contrato concesional.*
- b. *Haber asesorado a tres Administraciones Públicas o Entidades del Sector Público en la creación o modificación de sus normas orgánicas de funcionamiento (creación de entes públicos, redacción y negociación de convenios interadministrativos, redacción de estatutos, etc.)*
- c. *Haber asesorado a tres Administraciones Públicas o Entidades Públicas o Privadas en la negociación o modificación de contratos tipo Project Finance. Al menos una de dichas entidades debe pertenecer al sector público.*
- d. *Haber asesorado a tres sociedades vehículo titulares de contratos concesionales en aspectos mercantiles y societarios vinculados con los requerimientos de dichos contratos concesionales.*

Fakturazio handieneko urtean kaudimen gisa emandako zerbitzuengatik enpresa lizitatzaiarearen ordainsarien batura 300.000 eurokoa izango da gutxienez”.

La suma de los honorarios de la empresa licitadora por los servicios aportados como solvencia en el año de mayor facturación deben ser de al menos 300.000 euros”.

Bestalde, AKPAren ezaugarrien taulako 15. apartatuak honako hau dio:

Por su parte, el apartado 15 del cuadro de características del PCAP es del siguiente tenor:

“15.- BALIABIDEAK NAHITAEZ ATXIKITZEKO KONPROMISOA

“15.- COMPROMISO DE ADSCRIPCIÓN OBLIGATORIA DE MEDIOS

Lizitatzaialeek, kontratua betearazteko, gutxienez HIRU profesional atxiki beharko dituzte, kaudimen profesionalari dagokion atalean (Karatulako 3.4 atala) eskatutako sektore publikoko erakundeen lege-aholkularitzan esperientzia dutenak. Beharrezkoa izango da hiru profesional horietatik:

Los licitadores deberán adscribir a la ejecución del contrato, como mínimo, TRES profesionales con experiencia en el asesoramiento de carácter legal a entidades del sector público exigida en la solvencia profesional, apartado 3.4 de la Carátula, siendo necesario que de los tres:

- Denek zuzenbideko lizentziadun titulua izatea.

- *Todos posean la titulación de Licenciado en Derecho.*



- Gutxienez batek 15 urtetik gorako esperientzia izatea kaudimen tekniko edo profesionaleko irizpideetan agertzen den aholkularitza juridiko substantiboan. Lizitazaileak kontratuaren arduradun izendatu beharko du pertsona hori.
- Gutxienez batek 5 eta 15 urte bitarteko esperientzia izatea.
- Gutxienez profesional batek 5 urtetik beherako esperientzia izatea".
- *Al menos uno tenga más de 15 años de la experiencia exigida en asesoramiento jurídico sustantivo que figura en los criterios de solvencia técnica o profesional. Dicha persona habrá de ser designada como responsable del contrato por el licitador.*
- *Al menos uno tenga entre 5 años y 15 años de experiencia.*
- *Al menos un profesional con menos de 5 años de experiencia".*

SEIGARRENA.- Errekurtsogileak uste du 15. apartatuan nahitaez atxiki beharreko baliabide gisa eskatzen diren hiru profesionalak AKPAren ezaugarrien taulako 14.3.4 apartatuan kaudimen profesionaleko irizpide gisa eska daitekeen taldea osatzen duten berberak direla, edo, gutxienez, bi apartatueta aipatzen den kontratuaren arduraduna pertsona bera dela. Halaber, alegatzen du ezen, 14.3.3 apartatuaren arabera sektore publikoan zein pribatuan emandako zerbitzuak egiazta badaitezke ere, eskatzen dela kontratuari atxikitako langileek sektore publikoko erakundeei lege aholkularitzako zerbitzuak eman izana, eta, horrela, sarbidea galarazten zaiela kontratuaren xede diren eginkizunak betetzeko gai izanik eta sektore pribatuan esperientzia eta jarraitutasuna izanik, administrazio publikoei edo sektore publikoko erakundeei zerbitzurik eman ez dietenei.

Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Auzitegi Administratibo Zentralaren (KAEEAZ) eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioko hainbat organoren ebazpenak argudiatuz, uste du baldintza horiek lehia askearen printzipioaren eta diskriminazio debekuaren aurkakoak direla, eta erabat deusezak, Konstituzioaren 14. artikuluan aurreikusitako legearen aurreko berdintasunerako oinarritzko eskubidea urratzen dutelako.

Era berean, uste du gehiegizkoa dela kontratuaren arduradunari gutxienez hamabost urteko esperientzia eskatzea, eta taldeko beste kide bati bost eta hamabost urte artekoa, eta bazterkeria- eta diskriminazio-egoera sortzen duela; beraz, klausula deuseza dela deklaratu behar da.

Bestalde, GHKk uste du SPKLren 90.1.a)

SEXTO.- Entiende la recurrente que los tres profesionales exigidos en el apartado 15 como medios de adscripción obligatoria son los mismos que integran el equipo exigible como criterio de solvencia profesional en el apartado 14.3.4 del cuadro de características del PCAP, o que, al menos, el profesional responsable del contrato al que se refieren ambos apartados es la misma persona. Y alega que, aunque a tenor del apartado 14.3.3 se puedan acreditar los servicios prestados tanto en el sector público como en el sector privado, se requiere que el personal que se adscriba al contrato haya prestado servicios de asesoramiento legal a entes del sector público, impidiéndose así el acceso a quienes, siendo igualmente capaces de desempeñar las funciones objeto del contrato y contando con experiencia y continuidad en el sector privado, no hayan prestado servicios a Administraciones Públicas o entidades del sector público.

Invocando varias resoluciones tanto del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (TACRC) como de distintos órganos de la jurisdicción contencioso-administrativa, considera que tales requisitos son contrarios al principio de libre concurrencia y a la prohibición de discriminación, y nulos de pleno derecho por vulnerar el derecho fundamental a la igualdad ante la ley previsto en el artículo 14 de la Constitución.

También considera que exigir al responsable del contrato una experiencia mínima de quince años, y de entre cinco y quince años a otro de los miembros del equipo, resulta excesivo y provoca una situación de exclusión y discriminación, por lo que la cláusula debe ser declarada nula.

Por su parte, GHK entiende que el artículo 90.1.a)



artikuluak esplizituki ezartzen duela zerbitzu kontratuen kaudimena honela defini daitekeela: kontratuaren xede diren lanen izaera bera edo antzekoa duten lanen zerrenda baten bidez, non lanen hartzaile publiko edo pribatuak adieraziko baitira. Kontratazio organoaren aukera bat da, GHK-k kasu honetan legezkontasunera erabat egokituta erabili duena. Sektore publikoarekin egindako lanetan esperientzia izateko eskakizuna justifikatuta dago, "izan ere, bestela, nola egituratu ahal izan da erakunde publikoak sortzeko edo berregituratzeko emakida kontratu bat edo aholkularitza kontratu bat?". Ukatu egiten du errekurtsogileak argudiatutako ebazpenak agiri honi aplikatzekoak direnik.

Ildo beretik, proposamena aurkeztu duen lizitazzaile bakarrak, SIMMONS & SIMMONS LLPk, alegatzen du SPKLren 90.1 artikulua aukera ematen diola administrazio lizitazzaileari zerbitzuen hartzailea publikoa edo pribatua den bereizteko eta zerbitzu kontratuetan esperientzia espezifikoa eskatzeko sektore publikoarekin. Uste du errekurtsuak modu nabarmenean manipulatu dituela aipatzen dituen ebazpenak, horietako bat ere ezin zaiolako aplikatu orain lizitatzen dena bezalako zerbitzu juridikoen kontratu bati.

